

# Eta, agian, gainera



UXUE APAOLAZA LARREA

**A**urrekoaren zolatik ura sartzen hasten denean erosten du kirol zapatila pare berria. Kirol zapatilekin jantzi daitekeen arropa erabiltzen du. Txandala munduko arropa erosoena dela defendatzen du. Arrazoi du, noski. Badu bestelakorik. Armairuan. Gogoan dituzun janzki guztiak armairuan ditu. Jantzen duenak heze usaina dauka. Aste honetan ez ditu galtzak aldatu. Begizuloak ditu. Beti dirudi edo jaiki berria, edo hoge porro erreta. Umore gorabeheratsua du. Azkazalak zikin dauzka. Bakoitza neurri batekoak. Zaharragoa dirudi. Ilea galdu du. Ilea urdindu zaio. Azala... azala. Bileraren erdian jostailu baten doinua atera da bere motxilatik. Ezin du proiektuko bileraren ondorengo potea hartu. Bazkaritik kafea hartu gabe alde egiten du. "Zaindu!" esanda, barre egiten du. Ez dio email horri erantzun. Ezta horri ere. Eta biak ziren garrantzitsuak, beren modura. Eta ez da ez zaizkiola inporta, ez ditu erantzun. Agian, ez ditu gogoan ere, momentuan buruan beti bezain eraginkor jardutea besterik ez bazuen ere, bai afektiboki, bai profesionalki. Gerturatzen da zuregana, baina zuk ezin duzu, ezinezkoa da berekin geratzea, beti bukatzen du hitzorduak bertan behera uzten. 30eko grebako arratsaldekoa kasu, umeak sukarra omen zuen. Beti ondo dagoela esaten du. Izugarri argaldu da. Izugarri loditu da. Ematen du jada ez diola ezerk eragiten, baina bat-batean zerbaitek bai, eta negarrez hasten da, edo dantzan, edo zerbait okerragoan. Beti badoala dirudi. Batzuetan beste nonbait dirudi, batzuetan beste nonbait dago hizketan ari denean ere. Ez da isiltzen, ea horrela ez duten ikusten. Zigarroa, kafea, txikleka, boligrafoa... irauan behar ez duen zerbait beti eskuan (ez dauka termorik, kantineplorarik, agendarik, aterkirik... ez galtzeko arreta behar duenik). Beti darama telefonoa soinean. Inoiz ez dio telefonoari erantzun nahi. Deitzen diozuetan ia inoiz ez du erantzuten. Aulki erosoagoa eskainita ere, deserosoan geratzen da lehenago bukatzeko. Ezin izan dio izaki kultural baten moduan bazkaltzeko denborarik eman. Baina zerbait dakar hortzetan. Justu iristen da, paperik gabe, eta kosta egiten da bere begiradara iristea, ihesean ari da, barkamen eske bezala. Ziur zerbait ahaztu zaiola. Ez dago ziur hurrengoan etortzeaz gogoratu den, eta zuk ere, nahiz beti etorri den, zalantza egiten duzu. Ingurukoei laguntzeko edozein aitzakia baliatzen du, badakielako ez diela deituko. Motxila ezin ordenatu, paperez eta gauzaz beteta utzi du, eta beste poltsa bat hartu; poltsa ezin ordenatu, beteta utzi du, eta beste motxila bat hartu;... Ohartu zara segundo batzuek ez dizula entzun. Orain askotan egiten du. Lehen koma bat galtzen ez zuen bera da, eta segundo batzuek, ez dizu entzun. Umea uztean lasterka irten behar du, jasotzean ez dauka inorekin hitz egiteko gogorik, eta poste baten gainera botatzen du gorputza, eta zapatilei begiratzen die. Hurrengo astea beti hobea izango da. Hurrengo astea garaiz hasiko du. Hitz ematen dizu. Aspaldi ez du oparirik egin. Barre egingo luke hori irakurrita. Orduan zer gertatu da bere denborarekin. Ezin da bere ondoan egon larritasunik sentitu gabe. Inork ez du gehiegi hurbildu nahi. Oinazpietan beldurra sentitzen du gelditzen bada. Estropezu egin, eta gainera eroriko zaizula dirudi. Ez zorrotzegiak izan; ziur asko, norbait zaintzeaz ahaztu da. Eta, agian, gainera, ez du inork zaintzen. ●

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR